



Genero-arrazoiengatik jazarritako emakumei asilo-eskubidea aitortzeko kanpaina

www.sinrefugio.org

Generogatik edo sexu orientazioagatik jazarritako emakumeen babes eskubidea

EMAKUME LESBIANAK ETA TRANSEXUALAK: DISKRIMINAZIO BIKOITZA



ALDARTE

'Lesbiana, Gay eta Transexualen Arreta Zentroa'
Berastegi kalea 5-5º, 8 eta 9 bulegoak • 48001 Bilbo
aldarte@aldarte.org • www.aldarte.org • Tel. 944 237 296

ALDARTEk egina:

Amparo Villar Sáenz, koordinazioa
Inmaculada Mujika Flores.
Elena Olaortua Gonzalez

Kolaboratzaileak:

Immigrazio Zuzendaritza. Etxebizitza eta Gizarte Gaietako
Saila, Eusko Jaurlaritza.

Itzulpena:

Uxue Alberdi, BAKUN Itzulpen eta Argitalpen Zerbitzuak

Inprimazioa:

Centro reprográfico Goya

Egina:**Finantziazioa:**

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

ETXEBIZITZA ETA GIZARTE
GAIETAKO SAILA
Garapen Lankidetzarako Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE VIVIENDA
Y ASUNTOS SOCIALES
Dirección de Cooperación al Desarrollo

Aurkibidea

| | |
|---|----------|
| 1. Emakume lesbianak eta transexualak: diskriminazio bikoitza | 3 |
| 2. Nork darabil indarkeria? | 3 |
| 3. Ikusezintasuna: beste indarkeria era bat | 5 |
| 4. Emakume lesbianak eta transexualak eta babes eskubidea | 6 |
| 5. Bibliografia | 8 |

1.

Emakume lesbianak eta transexualak: diskriminazio bikoitza

Guztiok dugu sexu-orientazio eta genero-identitate jakin bat, baina horiek "normaltzat" jotzen denetik urruntzen direnean, maiz, era guztietako diskriminazioen, jazarpenen eta bidegabekeriaren jo-puntu ustez legifimoko bilakatzen dira pertsonak.

Munduan milaka eta milaka pertsonak exekuzioari, kartzelari, torturari, jazarpenari eta diskriminazioari aurre egin behar izaten diote beren sexu-orientazioaren ondorioz. Baina, hori gutxi balitz, estatu askok gai hau plazaratzea bera ere giza eskubideen oinarritzko printzipioen aurkako mehatxu gisa ikusten dute.

Sexu bereko pertsonekin eremu pribatuan sexu-harremanak izateagatik gizon-emakumeak kartzelaratzeko (normalean) sodomiaren aurkako legeak ezartzea giza eskubideen urraketa larria da, baita infimitaterako eskubidearena, diskriminaziorik ez jasateko eskubidearena eta adierazpen- eta bilera-askatasunarena ere. Eskubide horiek guztiak, gainera, Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalak babesten ditu, baita Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Itunak, eta Ekonomia, Gizarte eta Kultur Eskubideen Nazioarteko Itunak ere (PIDESC).

Hainbat herrialdetan, lesbiana, gay edo transexual izatea gaitz gisa hartzen da, eskubidea izan beharrean. Herrialde horietan homosexualitatea bekatua, gaixotasuna, edota desbideratze soziala edo ideologikoa da; eta pertsona homosexuali, maiz, beren kultura propioari traizio egitea leporatu izan zaie.

Normalean, gobernuek ukatu egin ohi dute beren lurretan giza eskubideen urraketarik gertatzen denik, eta salbuespen gisa definitzen dituzte. Estatu askok, ordea, inongo erreparorik gabe onartzen dute –kulturraren, erlijioaren, moralitatearen edo osasun publikoaren izenean– gay eta lesbianen aurkako errepresio praktikoa, eta lege-erabaki zehatzekin errazten diote bidea aipatu errepresio horri.

Munduan milaka eta milaka pertsonak exekuzioari, kartzelari, torturari, jazarpenari eta diskriminazioari aurre egin behar izaten diote beren sexu-orientazio homosexualaren eta genero identitatearen ondorioz. Baina, hori gutxi balitz, ESTATU askok gai hau plazaratzea bera ere giza eskubideen oinarritzko printzipioen aurkako mehatxu gisa ikusten dute.

Munduko hainbat txokotan, gay eta lesbianen bizi-moduak muga larriak ditu zenbait lege eta gizarte-praktikaren ondorioz. Izan ere, arau eta ohitura horiek

Zenbait herrialdetan harreman homosexualak ez-kristautzat, ez-afrikartzat edo ez-islamkotzat hartu ohi dira, edo baita beheraka datorren jokaera burgesaren seinaleztat ere. Beste zenbait gobernutan gay eta lesbianeñ giza izaera bera ere ukatu egiten diete. Hala, baldintza aproposak sortzen dira gay eta lesbianen aurkako tortura edo tratu txarrak gerta daitezten. **Historiak irakatsita dakigu gizagabetzearen lengoaiak erraztu egiten duela gizartearentzat duinak ez diren taldeen aurkako basakeria. Sexu-orientazio irizpideak, beste batzuekin batera, zorrotz zehaztu eta definitu dira, hala, gay eta lesbianak gizakien familietatik baztertzeko.**

Gay eta lesbianen aurkako ekintzak Poliziek eta Estatu funtzionarioek egin ditzakete kartzeletan edo beste instituzio publiko batzuetan, baina jazarpen horiek icebergaren punta baino ez dira. Etxean, eskoletan, lantokietan, kalean... eguneroko bizimoduko ohiko tokietan jasan behar izaten dituzte gay eta lesbianek, uneoro, era guztietako bazterkeriak. Emakume lesbianen eta transexualen kasuan, gainera, diskriminazio eta jazarpen horiek konnotazio bikoitza dute, hain zuzen, emakume izaera gehitzen zaiolako lesbiana edo transexual izaerari.

Emakumeak beren sexualitatea zehazteko eskubidea duten izaki indibidual gisa onartzen ez diren bitartean, indarkeriaren biktima izaten jarraituko dute, gizartearen duten beheragoko mailaren ondorioz. Hala, sexismoa eta homofobia gailentzen diren gizarte honetan, lesbianek eta transexualek gehiegikerien, jazarpenen, indarkeriaren eta diskriminazio bikoitzaren biktima izateko arrisku handia dute, hain zuzen, beren sexu-orientazioak dakarkien "gutxiagotasun" izaeragatik. Emakume transexualen eta lesbianen eskubideen urraketa ezkutatu egin ohi da eta, ondorioz, zigorrik gabe gelditzen da, gehienetan. Egoera hau munduko herrialde guztietan ikus daiteke, baina erro bakarra du: emakumeek emakume izateagatik jasan behar duten diskriminazio unibertsala.

2.

Nork darabil indarkeria?

direla medio, ez zaizkie oinarritzko eskubideak (bizitzarako eskubidea, askatasunerako eta gorputz-segurtasunerako eskubidea, segurtasunaren babeserako eskubidea, lan bat izateko eskubidea, hezkuntzarako eskubidea, sendagaietarako eskubidea edo bilera- edo adierazpen-askatasunerako eskubidea) gainerako pertsonen neurri berean errespetatzen. Salbuespenak salbuespen, herrialde askok ez dute lege-berdintasunik biztanle homosexualentzat eta gainerako biztanleentzat. Maiz, homosexualen aurkako

indarkeria ekintzek ez dute inolako erreakziorik sortzen, eta indiferenteki edo isiltasunean jasotzen dira.

Emakume izatea ez da soilik fenomeno biologikoa, fenomeno horren gainean jokaera-modu bat eraikitzen baita, gizartean bere rola betetzen duena. Hargatik, lesbianismoak gizarte tradizionalak sostengatzen dituzten baloreak kolokan jartzen ditu: ezkontza, familia, emakumearen gizonarekiko mendekotasuna, eta gizonezkoen zein emakumezkoen rola. Era berean, sexua jada ez da ugalketara mugatzen, sexua plazera da, eta horrek ere balore tradizionalak mehatxu egiten die.

Era berean, jada dimentsio lokala soilik ez, mundu mailako dimentsioa hartu duen erlijio-fundamentalismoak ere neurriak eskatzen ditu emakumeen eta lesbianen ahots berri hau isilarazteko. **Emakumeak bere gorputzaren kontzientzia hartzeak mehatxu egiten die tradizioei hain lotuak jarraitzen duten gizarteetako sostenguei, zutabeei, araei. Hainbat erlijiotako lider espiritualak elkarrengana batzen ari dira sexu-eskubideen aurka egiteko.**

Herialde ugarritan daude lege horiek, hainbat forma har ditzaketan arren: batzuetan sodomia delitu edo naturaren aurkako krimen modura, beste batzuetan, eskandalu publiko edo gaixotasun psikiatriko gisa. **Jarrera sexistak eta homofoboak gailentzen diren gizarte honetan arriskuan daude lesbianak, batez ere, eguneroko egoera horietan: etxean, lanean, komunitatean...**

Emakume askoren arazoa, beren eskubideak familian bertan urratzen zaizkiela da. Hartara, are zailagoa da egoera horiek salatzea, Estatuak tradizionalki egin baitio ihes alor horretan esku-hartzeari, pertsonen ingurune intimoa osatzen duela argudiatuz. Familia alor pribatutzat hartzeak, mendetan, etxe barruko tratu txarrak ezkutatzeko balio izan du. Komunitateak eta familiak askotan behartu izan ditu emakumeak gogoz kontra ezkontzera. **Herialde askotan, ulergaitza da emakume bat ezkongabea izatea, eta arrazoi hori nahiko da hura baztertzeko edo jazartzeko. Gainera, lege jakin batzuek gizonezko baten agindupean jartzen dutenez, emakumearen erabaki-gaitasuna, maiz, existitu ere ez da egiten.**

Askotan, gizarteek lesbianen aurkako indarkeria bul-tzatu edo, gutxienean, onartu egin ohi dute. Poliziak, lesbianak gogoz kontra sartu izan ditu ospitale psikiatrikoetan, sexu-orientazioa zutela zio bakar, eta maiz, senideek edo lagunek hala eskatuta gertatu da. Kontuan hartu behar da OMEK 1992an ezabatu zuela orientazio homosexuala Gaixotasunen Sailkapen Internazionaletik.

Familiaren ohorea zikintzea edo komunitatean auzolotsa sortzea leporatzen zaien gizarteetan, emakumeekiko erakarpena sentitzen duten emakumeek, beren burua lesbiana definitu ala ez, bereziki dute erasoak jasateko arriskua. **Maiz, beren hautu sexuala azaltzen duten lesbiana gazteak ezkontzera edo gizonezkoekin sexu-harremanak izatera behartzen dituzte senideek, lesbianismoa "sendatzeko". Emakume lesbianek bortxaketak, birjintasun-testak edo behartutako haundunaldiak jasan behar izaten dituzte,**

eta horiei, homosexual izateagatik pairatu behar dituzten indarkeria ekintzak gehitu behar zaizkie.

Batzuetan, eta atxiloketak sexualitatearekin inongo zerikusirik ez izan arren, poliziak galdeketeetan atxiloturiko emakumearen lesbianismoa haren aurka erabili ohi du. Zenbait poliziak uste du desbideratze sexuala beste desbideratze batzuekin harremanetan dagoela. Hargatik, lesbianek arrisku berezia dute poliziaren eskutik indarkeria ekintzak jasateko: askok sexu-erasoak jasan behar izaten dituzte behin eta berriz, eta batzuek sexu-indarkeria jasan behar izaten dute, bortxaketa barne. Agintariak indar polizialen sexismoa edo homofobia bezalako gaiak lantzen ez dituztenean, bortxaketei bidea erraztu baino ez zaie egiten.

Emakumearen indarkeriaren aurkako Nazio Batuetako Kontalari Bereziak, indarkeria horren kausak eta ondorioak kontuan hartuta, zera esan du: kolektibitatearen arauen arabera sexualki kaltegarritzat jotzen den jarrera duen emakumea zigortua izaten da. Hainbat gizartetan, emakumeek ezin dute sexu-jarduerarik eduki beren komunitate bereko gizonen batekin ezkontuta ez bada. Komunitateak gaitzetsirikotan erantxaketa erabakitzen duten emakumeak –dela ezkontzatik kanpo edo beren etnia-, erlijio- edo jatorri-komunitatetik kanpo harremanak izatea, edota heterosexualak ez diren harremanak izatea erabakitzen dutelako- indarkeria ekintzen eta tratu txarren biktime izaten dira maiz.

Emakumearen eskubideei buruzko nazioarteko itunak sinatu dituzten Estatuak komunitatearen eta familiarren praktika kultural horiei aurre egiteko betebeharra dute, baita erabaki horrek tradizioari edo erlijioari aurre egitea badakar ere.

Kontuan izan behar da jazarpena ez dela Estatuarena soilik, eta emakume lesbiana eta transexualen aurkako indarkeria, nagusiki, komunitatearen barnean edo LANAREN EDO FAMILIAREN esparruan gertatzen dela. Honek ez du esan nahi Estatuak ardurarik ez duenik edota eskuak garbi ditzakeenik, baina egoeraren kontrola ia ezinezkoa edo oso zaila gertatzen da. Ez da zaila MÓNICAren bezalako istorioekin topo egitea: MÓNICAK, 26 urteko emakume transexual brasildarrak, 5 urte zituenetik sexu-abusuak, bortxaketak eta eraso fisiko etengabeak jasan behar izan dituela kontatu digu, bai senideen eskutik, bai senideen lagunaren eskutik, eta baita komunitateko jendearen eskutik ere. MÓNICAK bere herritik ihes egin behar izan zuen biziraun ahal izateko, eta duela hiru urte gure herrialdera babes bila iritsi zenean, gure iritziz, abegi eta babes eskaera egin beharko zukeen.

Homosexualen aurkako eta, maila handiagoan, emakume lesbiana eta transexualen aurkako eraso guztiak ezjakintasunez eta aurreiritziz beteriko gizarte-egoeran gertatzen dira diskriminazioaren, errepresioaren eta, azkenik, inpunitatearen ondorioz. Gainera, testuinguru horretan, oso zaila da datuak lortzea. Estigma eta aurreiritziak direla eta, oso gutxitan salatzen eta dokumentatzen dira alor honetan egindako gehiegikeria eta erasoak. Errepresalien, mehatxuen, irainen edo irrien beldurrez, indarkeria-ekintza asko eta asko jatorriko herrialdean bertan ere ez dira salatzen, maiz, instantzia ofizialen aurrean egindako sa-

laketen erantzun bakarra indiferentzia izaten baita. Bi dira, nagusiki, erasoak EZ SALATZEKO ARRAZOIAK: erasoek biktimarengan berarengan sortu ohi duten **ERRU SENTIPENA ETA LOTSA**. Lehen aipatu dugun MÓNICAren kasua da, edota LILLrena, bestela: Gineako 50 urteko emakume lesbianarena. Ez da zaila lotsa eta erru sentipena ikaragarriak diren erasoer buruzko istorioekin topo egitea. Homosexualitateagatik edo transexualitateagatik eraso dituzten emakume askok uste du, jasan dituzten gehiegikeriak salatzeo eskubiderik izan ez dutela, eta gertatu zaien guztia beren izaeraren ondorio dela eta, hartatik, era batean edo bestean, merezi zutela; familiari eta komunitateari zoritxarra ekartzeagatik, pertsonen arteko harremanak gizarteko mailak eta gainerakoek pentsatuko dutenak

definitzen dituen gizarteetara desohorea eta laidoa eramateagatik.

Autoritateek toleratuta eta onartuta, gay eta lesbianen aurkako erasoak inolako trabarik gabe gertatzen dira. Fenomeno hau are argiago ikusten da tratu txarrok jasotzen dituztenak emakumeak direnean. Gizonezkoen homosexualitatea nazio-legediek debekatu egin ohi dute maiz, baina emakumeen sexualitatea ez da inongo araudi ofizialetan aipatzen. Emakumeek, eta haien artean lesbianek, beren gorputza nahi duten bezala erabiltzea erabakitzen dutenean, zaindu eta zelatatu egin ohi da haien sexualitatea, eta honek eragiten du, hain zuzen, etxeko eremu pribatuan, familian edo gizartean, errepresioa jasan beharra.

3.

Ikusezintasuna: beste indarkeria era bat

INDARKERIA FORMA ASKO DITU, eta IKUSEZINTASUNA da okerrenetako bat, sexu-orientazioa ezkutuan eta klandestinitatean bizi beharra, lesbianismoa edo transexualitatea ez igartzeko moduan. Sexismoak eta homofobiak sorturiko presio sozialek eragindako IKUSEZINTASUNA. Babes-legeak kontuan hartu behar du, pertsona asko eta asko abegi-herrialdera iristen diren momentuan hasten direla beren homosexualitatea era esplizitu eta irekian bizitzen; ordura arte isilpean bizi izan direla, sexu-orientazioa inola ere azaldu gabe, hala egingo balute gehiegikeria eta diskriminazioa besterik jasoko ez luketelako. ALDARTEn sarritan egin digu topo halako egoerekin: gure herrialdera lesbianismoaren edo transexualitatearen sekretua bizkar gainean hartuta iritsi diren hainbat emakume, abegi-herrialdean ere ez dira lesbianak direla esatera ausartzen, eta jatorriko herrialdean bezalatsu bizi ohi dute homosexualitatea. Indarkeria ekintzen beldur dira, bai baitakite, maiz ikusi izan dugun bezala, lesbianak edo transexualak direla aitortuz gero, hurbilekoenak gizarte- eta ekonomia-baliabideak eta baliabide pertsonalak ukatuko dizkietela.

Lehenago indarkeria era moduan aipatu dugun ikusezintasuna, bereziki, emakume lesbiana eta transexualekin erabili ohi da. Ez die berdinean eragiten gizonezko edo emakumezko homosexualiei, hain zuzen, lesbianismoa eta emakumezkoen transexualitatea, historikoki, *existitu* ere ez direlako egin. Gizonezkoen homosexualitatea nazio-legeetan esplizituki debekatu agertu ohi da, baina emakumeen sexualitateak lege-araudirik ez du, nazio askotan emakumeei ez baitzaie sexualiterik aitortzen. Zenbait herrialdetan, beraz, gizonezkoen homosexualitatea legez kanpokoa da, eta emakumezkoena, berriz, ez da aipatu ere egiten, emakumeak ikusezintasunera kondenatzen dira, beraz. Aipaturikoa argi eta garbi erakusten duen anekdota da honako hau: XIX. mendean Victoria Ereginak uko egin zion lesbianismoa debekatzeko zuzen

lege-proiektu bat sinatzeari, baina ez zuen inolako erreparorik izan gizonezkoen homosexualitatea legez kanpo jartzeko. Ezezkoaren arrazoa hauxe izan zen: "ezinezkoa zen halakorik egiteko gauza zen 'lady'rik egotea".

Gaur egun, eta XXI. mendean gauden arren, jarrera horrek bizirik dirau emakumezkoen homosexualitatearen inguruan. Lehenago esan bezala, zenbait herrialdetan, Afrikan eta Arabian, batez ere, gizonezkoen homosexualitatea legez kanpokoa da, eta emakumezkoen homosexualitatea, aldiz, ez da inon aipatzen. Horrek ez du legezkoa denik esan nahi, guztiz aldearantzizkoa baizik, ez baitu emakumezkoak haien artean libreki eta hala nahi dutelako harremanak izan ditzaketela kontuan hartu ere egiten. Hala gertatzen da Botswanan, Ghanan, Keinan, Mozambiken, Nigerian, Tanzanian eta Ugandan, adibide batzuk aipatzen hasita.

Bereziki generoari dagozkion tratu txarren biktima dira emakume lesbiana: bortxaketen, birjintasun testen, behartutako haurdunaldien eta abarren biktima. Beren hautu sexuala azaltzen duten lesbiana gazteak ezkontzera edo gizonezkoekin sexu-harremanak izatera behartzen dituzte maiz senideek, lesbianismoa "sendatzeko". Zimbabweko emakume gazte batek kontatu zigun, bere sendiak logela batean giltzapetu zuela eta bera baino zaharragoa zen gizon batekin sexu-harremanak izatera behartu zutela, hala, sexu-orientazioa "zuzenduko" ziotelakoan. 2001eko otsailan, fabrika batean lan egiten zuen Birmaniako lesbiana gazte bati, lanetik etxera bidean zihoala, bere lantegi berean lan egiten zuten hainbat gizon atera zitzaizkion bidera, eta oso polita zela esan zioten, pena zela lesbiana izatea. Segidan, arroz-sail batera eramane zuten, bertan sexualitate "normala" zuen pertsona bihurtu asmoz. Gizonetako batek, emakumeari eutsi, eta zera esan zien lagunei: "senda ezazue lesbiana anormal hau emakume bihurtu dadin".

1999an, Sri Lankako "The Island" egunkarian, Colom-bon egin zen lesbianen konferentzia batean atxilotu eta kartzelaratu zituzten bortxatzaileak askatzeko eskatzen zuen gutun bat argitaratu zen. Fanny Ann Hedí bortxatu ondoren sastakadaka erail zuten 2004ko irailaren 30ean. Fanny Ann Eddy Sierra Leo-nako komunitate gay, lesbiana eta transgeneroan nabarmendu zen, beti salatu izan baitzituen Sierra Leonan eta Afrika osoan zenbait erakundek eta pertsona zaurgarrik bere izaera aitortu nahi ez dieten gobernu kontserbadoreen eskutik jasotzen dituzten tratu txarrak. Fanny Ann Eddy-k lesbianen, gayen eta transexualen aurkako diskriminazio- eta indarkeria-ekintzak sustatzea leporatu zien behin eta berriro herrialdeko buruzagiei.

Fanny Ann Eddy bere orientazio homosexualagatik edo genero-identitateagatik eraso eta erail zuten beste bat gehiago da, bat gehiago zerrenda luze batean.

Indarkeria egoera hauek eta, batez ere, ikusezintasun egoera, are nabarmenagoa da emakumezko tran-sexualen kasuan. Berriz ere argi geratzen da lehenago aipaturiko diskriminazio bikoitza, edo kasu honetan, hirukoitza, zaurgarritasun egoera bereziagatik: emaku-me sentitu arren gorputz arrotz batean bizi diren pertsonak ezin dituzte emakume gisa dagozkien oinarriko eskubideak erabili, errealitate hori ez baita onartzen, ez baita aukera posibletzat jotzen. Kasu honetan ulertu ezina lesbianismoaren kasuan baino are handiagoa da.

4.

Emakume lesbianak eta transexualak eta babes eskubidea

Gaur egun, homosexualitatea munduko 200 herrialdek baino gehiagok zigortzen dute: horietatik 9 herrialdetan heriotza-zigorra ezartzen zaio, eta beste batzuetan, gizonezkoen homosexualitatea legez kanpokoa den arren emakumezkoen homosexualitatea aipatu ere ez da egiten.

Torturari eta indarkeria-ekintzei aurre egingo dieten bitarteko eraginkorrik ez dagoelako, gay eta lesbiana askok eta askok beren herrialdeetatik ihes egin behar izaten dute, babes bila. Hala ere, mila oztoporekin egiten dute topo beste herrialde batean babes-eskaera egiten dutenean eta beren eskubideak aitortzea eskatzen dutenean.

Errefuxiatuen Estatutuari buruzko 1951ko Genevako Hitzarmenean errefuxiatu izaera aitortzen zaie honako pertsona guzti hauei: **"arraza, erlijio, nazionalitate edo hautu politiko jakin bat izateagatik, edota gizarte-talde jakin bateko partaide izateagatik jazarrria izateko beldurrez jatorriko herrialdetik kanpo dagoen pertsona, herrialde horren babesa eskatu ezin duena edo aipaturiko beldur horiengatik eskatu nahi ez duena, edota nazionalitaterik izan gabe, eta lehenago bizileku zuen herrialdetik kanpo egonik, bertara itzuli ezin duena, edota beldur horiek direla medio, itzuli nahi ez duena"**.

Nazio Batuen Errefuxiatuentzako Mandatari Nagusiak dio, orokorrean, **eraso psikologikoen biktima diren norbanakoak, edota homosexualitatearen ondorioz tratu txarrak edo diskriminazio larria jasotzen dutenak errefuxiatu gisa onartu behar direla jatorriko herrialdeak babestu ezin baditu edo babestu nahi ez baditu**. Gizarte talde jakin bateko partaide direnez, homosexualen Errefuxiatuaren Estatutuari buruzko Genevako Hitzarmenaren babesa eska dezaketela erabaki zen 1995ean.

Oso gutxi dira sexu-orientazioagatiko jazarpena ihesaren arrazoi gisa eta Errefuxiatuaren Estatutua emateko

motibo bezala ikusten duten herrialdeak. Normalean, babesaren inguruko legediak 1951ko Genevako Hitzarmenaren irakurketa jakin batean oinarritzen dira, eta irakurketa horrek sexu-orientazioagatik jazarritako pertsonak baztertu egin ohi ditu, nahiz eta Amnesty International erakundeak eta Nazio Batuetako Mandatari Nagusiak irakurketa horrek homosexualen jazarpena ere barne har dezan gomendatzen duten, "gizarte-talde jakin bateko partaide" baitira.

Gaur egun, Europako eta beste kontinente batzuetako estatu batzuk espresuki hasi dira beren araudietan sexu-orientazioaren ondoriozko jazarpenak eragindako ihesa babesa emateko arrazoi gisa aipatzen. Hala egin dute Herbehereek, Belgikak, Kanadak eta AEBk, esaterako. **Espanian, Babes Legeak ez die sexu-orientazioaren ondoriozko zioei espresuki aipamenik egiten, baina 2004. urtean Barne Ministerioak, sexu-orientazioa arrazoi hartuta, errefuxiatu-politiko izaera eman zion, lehen aldiz, John Jairo Romero ekintzaile gayari. 2006an, berriz, talde militarrek mehatxatuta zeukatzen Kolonbiako ekintzaile lesbiana bikote bati babes politikoa eman zion.**

Nazioarteko zuzenbidean babesik aurreikusten zaien arren, asko dira jazarpenaren biktima diren gay eta lesbianeak legeen babesa jasotzea edo lege horiek erabiltzea oztopatzen dieten faktoreak. Batetik, herrialde gehienek ez diete gay eta lesbianeak babes-eskubiderik aitortzen, eta, bestetik, hala aitortzen dieten herrialdeetan ere oso zaila da jazarririk direla frogatzea. Frogak eskuratzeko modurik ez dagoela da arazoetako bat: herrialde askotan oso datu gutxi dago gay eta lesbianeak jasan behar izaten dituzten tratu txarren inguruan, eta, gainera, oztopoak jarri ohi dira biktimak edota datuak biltzen hasi diren gobernuak kanpoko erakundeek datu horiek eskuratzeko. Sexu-orientazioari buruzko gaien inguruan dauden estigmak eta aurreiritzik direla medio, oso gutxitan dokumentatzen edo

salatzen dira alor honetan gertatutako gehiegikeriak. Instantzia ofizialen aurrean egindako salaketan erantzun bakarria indiferentzia izan ohi da maiz.

Hainbat eta hainbat gay eta lesbianak uko egiten diote emigrazio-zerbitzuei beren sexu-orientazioa aitortzeari, batez ere, jatorriko herrialdeetik ihes egiteko arrazoiak Estatuko ordezkarien jazarpena izan bada. Benaz hartuak ez izateko beldurra, irainak jasotzekoa, homosexualitatea modu irekian azaltzeko beldurra edota berriro ere erasoak jasateko beldurra dira pertsona horiek beren bizitzetarako buruzko xehetasunak eman nahi ez izateko arrazoiak.

Askotan, bai errefuxiatu lesbianek eta transexualek, bai haien ordezkariaren ardura duten abokatuek ere, ez dakite babes-eskaera sexu-orientazioa arrazoi hartuta egin dezaketetik. Babes-eskaera asko jazarpen mota hori kontuan hartu gabe egin ohi da.

Sarritan, immigrazioaren arreta zerbitzuko arduradunak ez daude sexualitateari loturiko jazarpenei buruzko informazioa jasotzeko behar bezala prestatuta. Ez dituzte emakumezko transexualek eta lesbianek jaso ohi dituzten tratu txar bereziak ezagutzen, eta, maiz, sexu-orientazioa ez den beste arrazoiaren batean oinarritu ohi dituzte babes-eskaerak.

Gizarteko jarrera gaitzesleak eta diskriminazioek sorturiko milaka oztoporekin topo egiten dute emakume transexualek eta lesbianek, eta horregatik daude milaka arrazoi pertsona horiek jasaten dituzten tratu txarrak isilpean edo iluntasunean geratzeko. Ondorioz, babes-eskubidea jasotzea ezinbesteko duen hainbat eta hainbat pertsonari injustuki ukatu ohi zaio egindako eskaera.

Hamaika herrialdeetan homosexualitatea ez da oraindik eztabaida publiko bilakatu, eta homosexualitatearen lege-estatusak ez die inongo estatusik eskaintzen gay, lesbiana eta transexualei. Herrialde asko homosexualitatearen aurkako zigorrak ezabatzen hasi dira, baina ez dute inolako neurririk ezarri sexu-orientazioaren ondorioz sortzen diren diskriminazioei aurre egiteko eta horiek ezabatzeko. **Herrialde askotan gertatzen ari diren aldaketa-prozesuek gay, lesbiana eta transexualen onarpen formalak ekarri dute (legalizazioa eta zigorrak ezabatzea), baina onarpen formal horrek, gehienetan, ez du testuinguru erabat homofobia gainditzea ekarri, ezta bazterketa eta eguneroko marjinazioa gainditzea ere. Homosexualak ez dira kartzelara edo psikiatrikora bidali ohi, baina homosexualitatearen ondoriozko jazarpena jasaten jarraitzen dute, eta, sarritan, ihes egin eta beste herrialde batean babesa eskatu beharrean izaten dira.**

Ezinbestekoa da babes-araudiek gay, lesbiana eta transexual izatea nekeza edo ezinezkoa den herrialdeetako pertsona horien egoerak jasotzea; errealitate horiek nahikoa motibo baitira norbere herrialdeetik alde egin eta babesa eskatu behar izateko. Babes-politika koherentea behar da, helburu nagusi benetan babesa ematea izango duena. Horri lotuta, Genevako Hitzarmena sinatu duten herrialdeek, tartean Espainiak,

ezin dute pertsona bat Hitzarmenean zehazturiko giza eskubideen urraketak jasan ditzakeen herrialde batera bidali (izan gerrialde hori jatorrikoa edo beste edozein).

Gure ustetan:

- Babes Legeak, homosexualitateari eta transexualitateari buruz ari garenean, duen garrantzia eskaini behar lioke bereziki emakume transexualen eta lesbianen aurka erabiltzen den indarkeria mota horri: **IKUSEZINTASUNARI**. Beste indarkeria mota bat dela aitortu eta aintzat hartu behar litzateke, hitzeko mehatxurik eta eraso fisikorik gabeko indarkeria izan arren indarkeria delako, jasaten duten pertsonen adierazpen askatasunaren eta osotasunaren aurka egiten duena.
- Garrantzitsua da pertsonen atzean ezkutatzen diren norbanakoen istorioei erreparatzea. Emakume lesbianek eta transexualek beren aurkako erasoak dokumentatzen dituzten paperik ez izateak ez du esan nahi eraso horiek gertatu ez direnik. Hala, jatorriko herrialdean egindako salaketak kontuan hartu behar lirateke, baina baita erabateko bakardadean eta indiferentziaz inguratuta jasandako erasoak ere. Horiek ere balioztatzea egin behar lirateke lesbianek eta transexualek abegi-herrialde bateko babesaren bila egindako babes-eskaeretan. Ezinbestekoa da babes-eskaerak sor ditzaketan norbanakoen egoera tragiko eta mingarriak azalertzeko lan egitea.
- Zenbait herrialdek homosexualitateari LEGEZ KANPOKO izaera kendu badiote ere, horrek ez du esan nahi gizartean urtean sustraituriko intolerantzia eta homofobia giroa egun batetik bestera desagertuko direnik. Bazterketarik egon behar ez litzatekeen herrialdeetan diskriminazioak hor jarraitzen du. Turkia izan daiteke adibide, Europar Batasunean sartzeko eskaera aurkeztu duena. 2006ko urtarrilean, Parlamentuko Justizia Batzordeak zera erabaki zuen: Turkiako zigorkode berriaren zirriborroan sexu-orientazioa sartzeko bazterketarik eragin ez dezaketenez zertzeladaren zerrendan. Zirriborro hori onartzen bada, Turkia izango da biztanle homosexuali babesa eskainiko dien lehen herrialde islamikoa, begien bistakoa den arren aurrerapen horiek ez datozela gizarteko errealitatearekin bat, aitzitik, EBn sartu ahal izateko "garbiketa"ren ondorio direla. Errusian, 2004. urtean, berriro baztertu zen harreman homosexualak zigortzeko proposamena, Errusiako legedian proposamen hori 1992. urtetik zegoen arren baztertuta. Nabarmena da tradizionalki pertsona homosexualen eskubideak aitortzearen aurkakoak izan diren gizarteek, oraindik ere giza eskubideen urraketak toleratzen dituzten gizarte horiek, urte asko behar dituztela homosexualitatearen pertzepzioa onartzeko.

Errumania da beste adibide bat, edo Europako beste zenbait herrialde: Polonia, Bulgaria edo Baltikoko herrialdeak, esaterako. Errumanian orain bost urte

despenalizatu zen homosexualitatea, Europako Kontseiluak eta Bruselak hala aholkatuta. Ordura arte, Zigor Kodeko 200. artikulua 5 urteko kartzela zigorra ezartzen zien "eskandalu publikoa" eragiteko moduko jarreran atzematen zituztenei. Zigor hori ezabatzean homosexual asko irten ziren kartzeletatik, baina askatu zituztenean honako hau esan zuen gotzain batek: "Errumaniak Europarekin bat egin nahi du, ez Sodomarekin". Estonian, sendagileek gaixotzat daukate lesbianak, gayak eta transexualak, eta herrialde askotan, hainbat erlijio sinesmenen eragin nabarmenak galga ezartzen dio eskubideen aitortpenari, esaterako, manifestazioei.

Homosexualitateari delitu izaera kentzen dioten despenalizazioa moduko lege-aurrerapenek, homosexualen, lesbianen eta transexualen eskubideak onartu izanak eta oinarritzko eskubideekin loturiko beste hainbat auzitan Europako hainbat herrialdetan gertatzen ari diren aurrerapenek ezin gaituzte sexu-orientazioagatik gertatzen diren jazarpenak eta indarkeria-ekintzak amaitu direla pentsatzera eramán, akats larria bailitzateke. Horrek hainbat muga ezarriko litzieke, aurrerapen formalak indarrean izan arren eskubideak urratzen zaizkien herrialdeetatik etorri

eta babes-eskubidea eskatzen duten hainbat eta hainbat pertsonari.

Funtsezkoa da generoagatik, sexu-orientazioagatik eta genero-identitateagatik babes-eskubidea aitortzea eta babes hori eraginkorra izan dadin beharrezkoak diren tresnak martxan jartzea. Politika-, gizarte-, lege- eta ekonomia-neurri ugari aldatu behar dira bidegabeki BABES ESKUBIDEA UKATZEN ZAION gizon-emakumerik, tartean gay, lesbiana eta transexualik egon ez dadin. Horixe da askatasunaren eta sexu-aniztasunaren alde lanean ari garen pertsona eta erakundeon erronketako bat. ALDARTEn homosexualitatearen eta transexualitatearen ondorioz ezagutu ditugun jazarpen eta indarkeria kasu gehienak herrialde honetan bertan gertatu dira eta, sarri beranduegi ezagutu ditugu, erasoak jasan dituen pertsonak jada babes-eskaera egiteko beharrik ez duenean. Beharrezkoa da babesaren behar duten pertsona horiek garaiz aurkitzea, baita etorkinen babes- eta laguntza-protokoloetan aldaketak egitea ere, sexu-orientazioari eta genero-identitateari buruzko informazioa lortu ahal izateko, betiere helburu bakar batekin: BABESA ESKATZEKO BEHARRA DUTEN LESBIANA ETA TRANSEXUALEK HALA EGITEA.

5. Bibliografía

- "Historia del lesbianismo en occidente" dibulgazio-koadernoak: ALDARTE. 2003ko azaroa.
- "Transexualidad" dibulgazio-koadernoak: ALDARTE. 2002ko abendua.
- "ZERO" aldizkaria. 64. zenbakia. 2004: "Europa crece: ¿Qué esperamos de los nuevos miembros?".
- "ZERO" aldizkaria. 88. zenbakia. 2006. "Europa del Este: cruzada de odio".
- Sexu-gutxiengoaren Presazko Ekintzen Sarearen. "Los derechos humanos y la orientación sexual e identidad de género". Amnesty International.
- "Las raíces de la homofobia". 1. buletina (Amnesty International).
- "Diversidad". 3. buletina (Amnesty International). "Lesbiana y mujer: doble marginación".
- "Diversidad". 3. buletina (Amnesty International). "La concesión de asilo por orientación sexual en la UE".
- "Más cerca de igualdad en los Estados Unidos". 4. buletina (Amnesty International).
- "Nigeria: entre la Biblia y el Corán". 5. buletina (Amnesty International).
- "Los derechos humanos y la orientación sexual e identidad de género". 6. buletina (Amnesty International).
- "Pena de muerte y discriminación por orientación sexual". 14. buletina (Amnesty International).
- "Torture: Identité sexuelle et persecutions". 2001eko ekainaren 22ko Amnesty Internationalen txostena.
- Jeannie Dador eta Alonso Inga: sexu-orientazioagatik sorturiko bazterketari aurrea hartzeko eta hura ezabatzeko lege proiektua. Kolonbia.